

## GEBren dokumentazio zentroko 2020ko urtarrileko artikuluko nabarmenak



ZAFRA CREMADES, S., 2019. [Sare sozialak gazteek beren buruaz beste ez egiteko prebentzio](#). 3 c IKT: IKTetara aplikatutako garapen-koadernoak, 8. bilduma 2. alea, 54-69. or. ISSN 2254-6529

Informazio eta Komunikazio Teknologiek markatutako aroa honetan, sare sozialak dira gazteen eta hain gazte ez direnen arteko komunikazio-modurik ohikoena. Guk, lehen biztanleriataldean zentratuta, hauteman dugu ingurune horretan adierazten dituztela askatasun handiagoz munduari, haien egoerari zein osasun mentarekin lotutako arazoei buruzko ideiak. Horregatik, sare sozialen bidez, ikusi dugu balitekeela Adimen Artifizialean oinarritutako sistema bat garatu, sareetan idatzitako post-en baten balizko arrisku suizida detektatzeko ere gai dena. Gainera, posible da mezu horiek atzemateko sistema bat diseinatzea, bere burua elikatuko duena eta ikasbideak aterako dituen, Ikaskuntza Automatikoa bezala ezagutzen dena. Teknologia badu zeresanik suizidioa prebenitzeko, eta asko.

• • • • •



POSTIGO ZEGARRA, S., SCHOEPS, K., ORDÓÑEZ, A. eta MONTOYA CASTILLA, I. [¿Qué dicen los adolescentes sobre el acoso escolar?](#) Anales de psicología, 35. lib., 2. zk., 251-258. ISSN 0212-9728, 1695-2294

Ekintza antisozial guztiak, eskolako indarkeria eta jazarpena barne, antisozialak dira sortzen diren kolektibitatearen barruan, eta, hain zuzen, kolektibitate horren isla dira. Azterlan honek 15 eta 21 urte bitarteko 406 nerabek eskola jazarpenari buruz egindako bat-bateko adierazpenak ditu oinarri. Datuen analisi kualitatiboari esker, lau printzipio diskurtsibo bereiz daitezke: hasieran indarkeria ezeztatzea ("hori ez da gertatzen"), erantzukizunei uko egitea ("gertatzen da, baina ez dut nik bakarrik egiten, denok egiten dugu"), egoeraren larritasuna ezeztatzea ("txantxetan egiten dugu, ez dugu kalterik egiten") eta errua biktimari leporatzea ("jazarpenak zerikusi handiagoa du biktimarekin erasotzailearekin baino"). Nerabeen bat-bateko adierazpenak aztertzea lagungarria da berdin arteko indarkeriaren inguruan bizi duten interpretazio-testuingurua definitzeko. Beharrezkoa da ezagutza hori eredu zientifikoan sartzea, esku-hartze programa eraginkorrak abian jartzeko.

• • • • •



ALONSO BELLO, M.E., SANTANA VEGA, L.E. eta FELICIANO GARCÍA, L.A. [Trayectorias de empleabilidad de los jóvenes que abandonan el sistema de protección](#). *Educatio siglo XXI: Revista de la Facultad de Educación*, 36. lib., 3. zk., 485-504. or. ISSN 1699-2105

Babes-sistematik ateratzen diren gazteen gizarte-bazterkeriako egoerak baldintzatu egiten ditu beren enplegagarritasun-ibilbideak. Hauek dira gure ikerketaren helburuak: a) tutoretzapean egondako gazteen ibilbideak aztertzea, eta b) ikustea beren bizi- eta lan-esperientziek nola eragiten dioten beren bazterkeria-egoerari. Kasu anizkoitzeko azterketa bat egin zen lau gazte etorkin eta hiru nazionalekin. Kasuak aukeratzeko, baldintza hauek hartu ziren kontuan: a) babes-sistemari atxikita egon izana, b) gutxienez 6 hilabete laneratze-programa batean igaro izana, c) laneratze-proiektuaren amaieratik 6 urte igarota egotea. Azterketan, elkarrizketak, laneratze-planak, laneko fitxak, laneko egunkariak eta kontrol-erregistroak erabili ziren informazioa triangelatzen eta emaitzei sinesgarritasuna emateko. Lortutako emaitzetatik hau ondoriozta daiteke: 1) gazteei positiboa iruditzen zaie lan-merkatutako trantsizioan jasotako babesa; 2) gizarteratzea eta gizarte-bazterkeriatik ateratzea errazagoa da helburu argiak eta ondo definitutako bizi-proiektua izanez gero; 3) prestakuntza eta laneko esperientzia gutxi edukitzea oztopo da enplegagarritasun-konpetentziak eskuratzeko eta finkatzeko. Gizarteratze- eta laneratze-programek hauek sustatu behar dituzte: a) bizi-proiektuak aztertzea, b) babes-sareak areagotzea, eta c) babesdun enplegu-planak diseinatzea.

. ■ . ■ . ■ . ■ . ■ . ■ . ■ . ■ .